



Hondarribia

140. zkia ■ 2002ko Uztaia



Egun handia Hondarribiko ikurriñan

NAFARROAKO KOLONIETAKO HAURRAK GURE ARTEAN DITUGU BESTE URTE BETEZ



Kirol eta kultur aktibitate ugari antolatzen dira haurrei begira

Udako hilabeteak iristen direnean, guraso askok ez dakite zer egin bere haurrak mugimenduan mantentzeko. Egunak oso luzeak dira, baina laguntzeko aktibitateak ugariak dira. Hori pentsatuko dute hainbat gurasok bere haurrak kolonietara bildaltzen dituztenean.

Guk gure seme-alabak Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroan antolatzen diren kolonietara bidaltzen ditugun bezala, nafarrek Hondarribira bidaltzen dituzte bereak aspalditik. Guztiok gogoratzen dugu nola aspaldidanik udako hilabeteetan Nafarroako herrietatik hona etortzen diren

mutil eta neska ugari. Denborak aldatu dira, baina historiaz beteriko etxe hau hortxe dago, eta ehundaka dira urtero bertatik igarotzen diran pertsonak, itsasoa ikusteko irrikitan etortzen diran gazteak.

Hori dugu "Blanca de Navarra" etxearen kasua. 1935. urtean sortu zenetik, Nafarroako Kutxaren eraikin hau bere instalakuntzak eraberritzen joan da, baina bere asmoa eta grina berdina da, Hondarribira hurbiltzen diren neska eta mutil nafararren egun hauek ahalik eta zoriontsuenak izatea.

TURISMOAK BEHERA EGIN DU UZTAILEAN



Eguraldi kaxkarrak ez dio batera mesederik egin turismo arloari.



Inguruan bizi garen guztiak ohartu gara zer nolako eguraldia egin duen uztaillean. Oporretan daudenak ezin urtean zehar pentsatzen egon diren hondartzako arratsalde pasa horiek egin, eta mendira irtetzea gustatzen zaienak ere gaitzerdi.

Hala ere, eguraldi kaxkar hau gehien nabaritu eta sofritu dutenak Hondarribiko dendari eta merkatarak dira. Uztaila eta abuztua izaten dira

euren lan hilabeterik indartsuenak, eta ziuraski ez dira oso pozik egongo uztaillean izan dugunarekin. Ikusi besterik ez dago zer nolako itxura aurkezten duten hondartzak eta Portuko kaleek.

Hala ere, bada ere eguraldi gris honekin pozik egongo den jendea. Berebil gutxiago, lasaitasun gehiago eta urtean zehar egiten den bizitzarekin jarraitzeko aukera.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldikaria zure etxean jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:


Helbidea:

Herria:

Kontu Korrontea:

Hondarribiko Harpideak..... **6 euro/urteko**

EUSKARATATIK 8 HIZKUNTZETARA ITZULITAKO TURISMO HIZTEGIA



Udal Euskara Batzordeak aurten ere "Uda Euskaraz" hiztegitxoa kalera-tu du. Bertan, gure artean turismoan dabiltzan guztiei zuzenduta, ohikoak diren hitz eta esaldien itzulpena egiten da.

Euskaratik erdara, frantses, katalan, galego, ingeles, italiar, alemaniar eta txineraz egin dira itzulpenak, Hondarribira hurbiltzen diren turisten jatorria kontutan

hartuta. Hortaz gain, Euskal Herriari buruzko deskribapentxo bat egiten da, baita euskarari buruz ere.

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta Hondarribiko Udaleko Euskara Batzordeak argitaratzen duten hiztegitxoa da.

AMA GUADALUPEKOAK HIRUGARREN TOKIA ESKURATU ZUEN BERE ESTROPADAN

- Aurreko egunean Ondarrun seigarren sailkatu ziren Orbañanos-en mutilak

Asteburu gogorra izan dute Hondarribia Arraun Elkarteko arraunlariek. Abuztu-ko lehen igandean, tradizio bat bilakatu den bezala, Hondarribiko Ikurriña ospatu zen Bidasoaren uretan, eta hori gutxi balitz, ordu gutxi lehenago, Ondarruko Ikurriña ospatu zen. Biak Euskadiko A Ligaren barnean sartu beharreko estropadak.

Orden kronologikoari jarraiki, larunbateko arratsaldeko seiretan hasi zen Ondarrun txapelketako zazpigarren froga. Ama Guadalupekoak, ohikoa den bezala, bigarren txandan egin zuen arraun, eta Isuntzaren atzetik sailkatu zen. Hirugarren txandan parte hartzen duten lau traineruek denbora hobe egin zuten. Bere txandan, Astillero eta Santurtziri garaitu zitzaion Hondarribia.

Ez zen gauza bera gertatu igande eguerdiz

Hondarribian ospatu zen estropadan. Euskal Liga A-ko taldeak lehen aldiz Gipuzkoako uretan aritu ziren aurtan. Bidasoako uretan, Astilleroako arraunlariek nagusitasun handia erakutsi zuten, eta gure Ama Guadalupekoak paper bikaina bete zuten.

Etxeko estropadan hirugarren tokia

Hirugarren tokian sailkatu zen, Astillero eta Castroren atzetik. Ia denbora berean Urdaibai sartu zen. Pasai Donibane eta Orío uste baina maila baxuagoan aritu ziren, seigarren eta zazpigarren sailkatu zirelarik. Bien aurretik, Isuntza sartu zitzaion.

Hondarribiarrek egindako lan bikaina egun osoan zehar barreiatu zen hiri osoan. Jai giroa nagusi izan zen, eta datozen estropadetan lan onak egiteko esperantza zabaldu zen hiritar eta zaletu guztien artean.

BETZOKI

TABERNA - JATETXEA



*Beti euskararen
alde*

Mouriskot etxea
Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA

¿Necesitas fotos tipo carnet?

D.N.I., CONDUCIR, CAZA, COLEGIO, ETC.
O SIMPLEMENTE PARA REGALAR A TUS AMIGOS

20 FOTOS CARNET

foto **FRANAN** POR SOLO **3,58 euros**

Zuloaga,4
Frente al ambulatorio
HONDARRIBIA

595 PTS.


ROJAS Y SANDOVAL APEZPIKUARI BURUZKO LANA KALERATU DA

- Hondarribia 800-en barnean sartzen den argitalpenen lehen fruitua da

Datorren urtean Hondarribiak bere 800. urteurrena beteko duela eta, horretarako sortu zen lan batzordeak, beste zenbait aktibitatearen artean argitalpen ugari kaleratzea erabaki zuen, Hondarribiaren historiarekin nolabait lotuta egon beharko zutelarik.

Horietakoa lehenak argia ikusi du. Felix Elejalde idazleak Cristobal de Rojas y Sandoval apezpikuari buruz idatzi duena da hain zuzen. Arrazoa oso simplea da: Hondarribiko seme ezagunenetakoa izan den honek 500 urte beteko zituen uztailaren 26an.

Hori dela eta, liburua data hortan aurkeztea erabaki zen, eta horretarako apezpiku zenak Alde Zaharrean daukan plazatxoa behar moduan egotea ezinbestekoa zen. Azken hilabeteetan inguruko biztanleek hainbat ezbehar jasan behar izan dituzte obra horiek direla eta, baina egun, Apezpiku plazak itxura ezinhobea aurkezten du.



Hondarribiko historiaren pertsonaia ezagunenari buruzko liburua Felix Elejaldek idatzi du

FS 
oto sistema

ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA



JAVIER
OPTIKO

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxa: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA

SANTA MARIA MAGDALENALAKO BIZILAGUNEK URTEROKO JAI ARRAKASTATSUAK ANTOLATU DITUZTE



Urten ere Santa Maria Magdalena (Barrio Txino) jaiak ospatu dira. Eguraldia ez da aurten uste bezain ondo portatu, baina auzo-koen animoan ez du horrek inongo eraginik izan. Aktibitate desberdinak antolatu dira, gehienak haur eta gaztetxoengan pentsatuz, beraiek baitira gero errelebua hartuko dutenak. Nahiz eta haurrak diran jai hauen protagonista nagusiak, asko dira ere bere inguruan biltzen diren guraso, aiton-amona eta beste auzoetako kuriosoak ere. Tradizio bilakatu diren jai batzuen aurrean gaude, eta horren alde burrukatzen dute antolatzaileek. Hori dela eta, denon babesa eta bultzakada merezi dute Santa Maria Magdalena jaietako antolatzaile batzordeak.

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

ARRAUN ELKARTEA

GIMNASIOA

Aerobic, muskulazioa, masajeak, piraguen alokairua eta gordelekua, mantenimendu gimnasia, gimnasia terapeutikoa, sauna dohainik.

HERRIKO GIMNASIORIK EDERRENA!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

NAFARROAKO KOLONIETAKO HAURRAK GURE ARTEAN DITUGU BESTE URTE BETEZ



Kirol eta kultur aktibitate ugari antolatzen dira haurrei begira

Udako hilabeteak iristen direnean, guraso askok ez dakite zer egin bere haurrak mugimenduan mantentzeko. Egunak oso luzeak dira, baina laguntzeko aktibitateak ugariak dira. Hori pentsatuko dute hainbat gurasok bere haurrak kolonietara bildaltzen dituztenean.

Guk gure seme-alabak Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroan antolatzen diren kolonietara bidaltzen ditugun bezala, nafarrek Hondarribira bidaltzen dituzte bereak aspalditik. Guztiok gogoratzen dugu nola aspaldidanik udako hilabeteetan Nafarroako herrietatik hona etortzen diren

mutil eta neska ugari. Denborak aldatu dira, baina historiaz beteriko etxe hau hortxe dago, eta ehundaka dira urtero bertatik igarotzen diran pertsonak, itsasoa ikusteko irrikitan etortzen diran gazteak.

Hori dugu "Blanca de Navarra" etxearen kasua. 1935. urtean sortu zenetik, Nafarroako Kutzaren eraikin hau bere instalakuntzak eraberritzen joan da, baina bere asmoa eta grina berdina da, Hondarribira hurbiltzen diren neska eta mutil nafararren egun hauek ahalik eta zorionsuenak izatea.


BORDARIREN LAN BILDUMA EROSTEKO AUKERA EZIN HOBEA

• 3 eurogatik, bi liburutan hondarribiar handi honen bilduma eskuratu dezakezu

Udal Euskara Batzordeak Fernando Artola Sagarzazu "Bordari" zenaren bilduma osoa hiritar guztien eskutara jarri berri du. 3 eurotako prezio sinbolikoa ezarri zaio, eta horren truke, Bordari-k bizitza osoan idatzitako lanak bi liburu dotoretan etxean gordetzeko aukera dugu.

Bi tomo desberdintzen dira, Sendoa argitaletxeak argitaratuak, eta Bordarik gaztetatik idatzitakoak bertan irakur ditzazkegu, kontaketak, poesiak...

Orain artean Ikastetxeek erosi dituzte liburu hauek, eta orain, hondarribiar orori luzatzen zaio erosteko aukera. Udal Euskara Batzordean daude zure zain, goizeko 9etatik 13etara.





Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdindegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA


GORA GAZTEAK KONPAINIAREN 80. URTEURRENEKO LIBURUA LAISTER KALERATUKO DA

- Konpainia ustez 1922. urtean sortu zen eta badirudi "Juventud Católica" zuela izena

Konpainiaren sorreraren 80. urteurrena betetzen dela eta, "Gora Gazteak" konpainiako lan talde bat aldizkari edo liburuxka bat egiten ari da. Ustez 1922. urtean sortua, egungo Alardeko konpainia esanguratsuenetako bat da, bere xarma, kolore eta dituen soldadu kopuruaren aldetik.

Abuztua amaierarako liburua liburudendetan salgai egongo da, eta une hauetan azken ikutuak jasotzen ari da.

Hainbat kapitulu izango ditu liburua. Alardeen historia aztertuko da lehenik, Hondarribiko Alardearena ondoren, Gora Gazteak konpainiarena, 1922 urte hartan Hondarribiak ze egoera bizi zuen, eta nola ez, konpainiaren kantinera eta kapitain izan direnen zerrenda eta argazkiak.



EROSLE

CHARTER SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA

DISCOTECA
TRUCK
HONDARRIBIA

Foru Kalea,
Z/G

Almirante
Alonso
Kalea, 12

Pub
Kaizar

JAIZUBIAKO JAIAK, AUZO HISTORIKO BATEN ELKARGUNEA



Florentxio Arrieta, Bittor Galarza, Jesus Arozena eta Joxe Mari Arzuagarekin solasean egon ginen Jaizubia Auzoko jaietarako buruz. Umore onez gogora ekarri zizkiguten duela 20 urte inguru egun bere elkartearen etxeak zer nolako itxura zuen, nola aldatu zuten goitik behera, nolako aktibitateak antolatu izan diren urteetan zehar... Laister dira jaiak, eta denoi luzatzen digute gonbitea bertara joateko.


Jaizubia da Hondarribian dauden auzo guztien artean historikoenetako bat. Xarma berezia du, bai auzoak eta berau osatzen duten baserritarrek. Laister da Amabirjiña eguna, abuztuaren 15ean, eta beste urte betez, auzoko jaiak ospatuko dira. Antolatzaile talde batekin egon ginen, jaien jatorriari buruz zerbait gehiago jakin asmoz. Geografikoki hirigunetik aparte, badirudi herriak ere ez duela oso kontutan hartzen jende honek, Jaizubia Elkartearen bidez egiten duen lan handia, jarrain irakurri ahal izango duzuten bezala.

Florentxio Arrieta, Joxe Mari Arzuaga, Bittor Galarza eta Jesus

Arozenak gustora kontatu zizkiguten auzoko gai eta historiak.



Jaizubiko bizilagunak, duela hiru urte ermitaren irekiera egin zenean



Neska,

uda honetan

badaukazu zer

irakurri!

Noiz sortzen dira Jaizubia auzoko jaiak?

Gure ustetan 1980. urtean hasi ziren egiten auzoko jaiak. Gure lokala orduan inauguratu genuen, aurretik etxea erortzeaz zegoen eta. Orduz geroztik, beti Amabirjiña egunaren inguruan ospatzen ditugu jaiak.



Jaizubia Elkarteak itxura hau aurkeztu zuen 1978 urtean.

Etxearen lehen konponketa hura zuek egin zenuten ezta?

Bai auzoko jendeak egin genuen dena. Etxea oso gaizki zegoen orduan, ijituak bizi izan ziren guk konponketa egin aurretik. Teilatu berria jarri genuen, estruktura dena aldatu genuen, barruko alde guzia aldatu genuen. Jaizubia Elkartearen lokala hor jarri genuen, eta orduz geroztik hemen gaude.

Zenbat bazkide zaudete elkartearen?

Orain 60 inguru egongo gara elkartearen. Sozio fundadoreak izan ginenen artean, ia erdiak orain jubilatua gaude. Urte asko daramatzagu lanean eta antolatzen.

Zuen errelebu hartuko duten gazterik bada?

Bai. Jende gaztea bada eta lanerako prest gainera. Gehiago esanda, jende gaztearen laguntzarik gabe ezingo genituen jaiak antolatu, gauza asko ekarri, eraman, tokiz mugitu, gora igo, ekarri... behar da, eta gazteen indarra ezinbestekoa da horretarako.

Zein da Jaizubiako jaien helburua?

Auzoan giro ona sortzea, denak elkartzea eta ongi pasatzea. Horretarako urtero jai programa bat prestatzen dugu, ahalik eta jende gehien etorri dadin.

Jende asko etortzen al da jaietara?

Bai, asko etortzen da. Auzoko jendeaz aparte, Portugitik, Hondarribia osotik, Anaka eta Irungo jendea, Lezokoak... etortzen dira. Jai giro aparta egoten da. Santiagotxotik, Arkoll, Semisargatik... etortzen dira, eta gero guk bisita bueltatzen diegu baita.

Jaiak antolatzeko orduan zer da zailena?



ENARA, C.B.

EXPERTOS INMOBILIARIOS



VITALICIO

GENERAL ASEGURAOAK

Rgs. Zbk. 3625

San Pedro, 4 behea
20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 3972
Tel. y Fax 943 64 53 38

BAR ETXEBERRIA



En el Casco
Histórico

Alde Zaharrea

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Zailena agian ez, baina lan gehien ematen duena, dudarik gabe, otorduak dira. Amabirjiña eguneko herri bazkaria, beste herri afari bat ere egiten dugu, eta beste bi egunetan ere afariak ematen dira. Horrek denbora eta lan asko eskatzen du. Gogo onez egiten dugu, jende asko eta giro bikaina sortzen delako, baina nekea handia izaten da.

Noiz egin zen ermita eta pilotalekua?

Aurtengo jaietan hirugarren urteurrena izango da. Hau ere auzoko jendeak egin genuen, ikusi besterik ez dago nola gelditu den. Pilotan jolastera jende asko etortzen da, eta askotan



txandak ezin harturik ibiltzen dira. Batzuk jolasten eta besteak esperoan, ia noiz amaituko duten partida, beraiek jarraitzeko.

Zer nolako lana burutzen du Jaizubia Elkartek jaietz aparte?

Lan handia egiten dugula uste dugu. Jaiak alde

**GESTORÍA
INMOBILIARIA**
Pérez Alkain

Matxin de Arzu 14
20280 HONDARRIBIA

Tel. y Fax 943 64 21 57
e-mail: gespeal@euskalnet.net
Móvil: 656 75 89 83



*Cocina tradicional
Carta
Menu del día
Raciones y
cazuelitas*

C/ San Pedro, 63
Tel.: 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA

batera utzita, saltsa askotan sartzen gara. Hor dago adibidez Hondarribiko Jai Nagusietako hilaren 11an Alamedan antolatzen diran aktibitate denak, Santo Tomas egunekoak...

Aurtengo jaietarako ze nolako egitaraua prestatu duzute?


Denetarik egongo da. Hilaren 14ean hasiko dira arratsaldez, baina egun fuertea osteguna izango da, Amabirjiñaren eguna. Goizeko 8tako Diana egongo da, 10.30tan Meza, pilota txapelketako finalak ondoren. Eguerdian Irazu eta Mendizabal bertsolariak hemen egongo dira, eta gero herri bazkaria izango dugu beraiekin. Arratsalde parterako, herri kirolak (Goenatxo hemen egongo da) eta erromeria izango dugu.

Larunbata iluntzerako ere herri afaria eta erromeria izango dugu, baita kaltzontzillo eta kuleroen lasterketa goizaldeko ordubetetan.

Azkenik, igandean ohiko diana eta Mezaz gain, idi-probak, haur-jokoak, asto lasterketa, erromeria, zezen-zuskoa... izango ditugu.

Lerro hauen bitartez, denoi dei egiten dizuegu Jaizubiako jaietan parte hartzera.

Jaizubiko Elkarteak ez da mugitu gabe geratzen den horietako bat. Jende langile eta jatorra, umore onez gogoratzen dituzte bere lokala euren eskuak erabiliz garbitu zituzten egun hainak. Hala ere, herriak alde batera utzi dituenaren susmoa hartzen da bere hitzetan,



herri gunetik urrun daudelako kaso askorik egiten ez zaielakoan.

Ez da ahaztu behar, Hondarribian auzo historiko eta tradizional bat badago, hura Jaizubia dela, eta jende honek burutzen duen lana ez litzateke alde batera geratu behar. Nahiz eta Jaizubiko baserritarren jaiak diren, Hondarribia duen aberastasuna indartzeko balio bait dute tankera hontako jai eta elkarteek.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 HONDARRIBIA Teléfono 943 64 27 38

FISIOTERAPIA SOKOA

- FISIOTERAPIA
- ERREABILITAZIOA
- MASAJAK
- ETXE ZERBITZUAK
- LANBIDE ETA OSASUN ASEGURUEKIN LAN EGITEN DA

**AITZIBER GOÑI OLASAGASTI
AINHOA ISARCH COMA**

**ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA
8.00etatik - 21.00era ETENGABE IREKIA**

Sokoa Merkataldegia Tel. 943 64 46 57
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIA URREZKO HERRIA, VICTOR HUGOREN II. MENDEURRENEAN

Aurten bete dira berrehun urte –deux siècles de légende- Victor Hugo jaio zenetik. Frantziak ez du ahaztu idazle bikain eta goitibehereko gizon hau, “askatasunaren eta aurrerapenen aldeko burrukalarri gogorra izana”.


Lino Akesoloren aipu honekin eta berari jarraituz, artikulu berezia eskeiniko diogu, *Hondarribia* aldizkarian ere Victor Hugo-ri, zeren hondarribiarrentzat aipamen eta opari gogoangarri eskergarriak egin baitzituen.

Frantzia osoa, batez ere berre herri zen Besançon, “célèbre” Victor Hugo omentzen dabil. Pasaia urte osoan zehar omentzen ari da idazle bikain hau. Izan ere, idazlea bi alditan izan zen Euskalerrian eta ongi baino hobeki ulertu eta ezagutu gaitu.

Bere jaiotzaren 200. urteurrena aurten ospatzen dela eta, dozenaka artikulu, liburu eta omenaldiren tartean, geure aletxoa ekarri nahiez gatzoguz ere.

Victor Hugo eta Euskalerrria

Euskaldunok, birritan izan genuen Euskalerrrian:



Idazle frantziar handia Hondarribitik igaro zen XIX. mendean



eukeni optika

neretzat
zuretzat
guztiontzat

San Pedro, 57
20280 Hondarribia
943 643 805

R.P.S. 28/98 O.P.

EXPERT

GEURIA

MOBILIARIO DE COCINA
Tel. 943 64 07 14

ELECTRODOMÉSTICOS
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

1811-12 inguruan lehendabizikoz, bere aitarekin hemendik zehar Madrilera joanez eta etxerakoan bueltan, eta 1843ko uztailaren 20tik abuztuaren 26 arte. Bigarren bidaia honetan, Pirinioak zeharkatu zituen, Miarritze, Baiona, Donostia, Pasaia, Lezo eta Iruñean barrena ibili zelarik.



Juliette Drouet-ekin
batera egin zuen
1843eko bidaia

apur bat ikasi zuela dirudi. Euskarari, Euskalerriari eta euskaldunei dagokiela, "Pirinioak" lanean idatzi zituen gauza bitxi xamarrek aurkitzen ditugu.

Besteak beste, aitorten hauek esan zituen labur-bildurik: "Donostiatik Pasaira bitartean ez da erderarik entzuten, euskera da nagusi. Bidasoaz alde batera eta bestera dauden herriak ez omen dira ez Frantzia ez Espainia. Euskaldun jaio, euskaldun hazi, euskaldun bizi eta hiltzen omen dira. Euskera euren aberria dute, ia erlijio bat. Euskeraz egiozu euskaldun bati eta harrezkero zu ez zera horientzat edozein gizon; handik aurrera anaia zaitu. Euskarak egiten du euskaldunen batasuna. Espainola hemen, frantsesa bezain arrotza da".

Hala eta guztiz ere, aitorten eta iritzi guzti hauek eginda gero, nork esango luke Euskalerriaren alde oso-osoan ez dagoenik? Gezurra dirudien arren, Victor Hugo-k berezko legetzat dauka herri handiek herri txikiak irauntsi eta hiltzea. Hona hemen, batzuentzat, Napoleongerria hau bere ahotan entzuna: "Euskaldunen batasuna hilez doa, berantza doa. Estatu handiek estatu txikiak irauntsi beharrekoak dira. Hori da historiaren eta naturaren legea".

Victor Hugo eta Hondarrabia

"Fontarbie m'avait laissé..."

Hondarribiak argitasun inpresioa utzi zidan.

Victor Hugok, 41 urte zituelarik, Juliette Drouet neska-lagunarekin egin zuen bidaia eta euskara

KAFETEGIA

GOZOTEGIA

San Pedro 10
Tel. 943 64 10 47
20280 HONDARRIBIA

Arroka-Berri

ERRETEGIA

Higer bidea
Tel. 943 64 27 12
20280 HONDARRIBIA



Victor Hugoren jaioterria: Besançon 1802 an

Mugagabeko zabalduan, itsas-golko baten barrenean, kanpandorre zorrotzarekiko urrezko herriaren silueta: halaxe geratua zen nire gogoan. Berrizkoan ez dut lehen ikusi nuen bezala ikusi. Herri aski polita da Hondarribia, muinoan koka-tua, behean paseorako arboladia duela, alboan itsasoa, eta Irun nahiko hurbil. Legoa erdi, nonbait hor.

“Au loin, une trincadoure de Fontarbie lutte...”

Urrutian, Hondarribiko arrantzuntzi bat borrokan ari da, bi belak aidean, badian sartzeko asmoz. Barrrarantz doa. Bagek bortizki erasaten dute brankatik popara; olatu bakoitzak goiti jasotzen du, gero muturrez beheiti botatzen urezko amilera, zeina harrotzen den, ontzia ostera goiti altxatzeko.

Arestian, artzain batek hala esaten zidan: **Iguraldi gaiztoa** (*). –Hona hemen ontzia; ia heldu du da itsasoak aparrez estaltzen duen kai-muturrera. Mastak etzanik, belak ikaran. Badoa. Sartu da. Txitxar bat kantari belarretan nire aldamenean.

(*) Honelaxe, sic, euskaraz alegia, dakar Victor Hugok bere testuan.

Gure lagun Jesus Mari Mendizabal-ek itzulitako bi testuok irakurri ondoren, Victor Hugoren 200. urteurrena zela eta, Hondarribiak ere maitez oroitutua beza Besançon-eko idazle handia eta bihotzez eskertu beza idatzitakoa.

KOLDO ORTEGA

gizonezkoentzako
ileapaindegia

TIRLIA

Beñat Etxepare 18
Tel. 943 64 58 30
20280 Hondarribia



BAR HONDARRIBI

AUKERA HANDIA BANDERILLA ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel.: 943 64 27 05

20280 HONDARRIBIA

“LA REVERTE”, TOREROA HONDARRIBIKO PLAZAN DUELA 100 URTE



Betidanik izan da torea edo zezenketa gizonen inguruko mundu bat, emakumezkoei herbitsita balitz bezala agertzen den mundu bat. Hala ere, duela zenbait urte, Espainian emakumezko bat agertu zen zezenketan, Cristina Sanchez izenekoa hain zuzen. Zenbait urtetan gizon artean ibili ostean, erretiroa hartu du, zenbait gizonen mespretxua egin diotela

esan ondoren. Hala ere, ez da lehenengo emakumea izan. Hor daude historian zehar ezaguna bilakatu diren Juanita cruz, Maribel Atienzar, La Pajuelera, Gitana Cantarina, Charrita Mejicana, La Garbancera...

Askotan esan dugu aldizkari honetan Hondarribiko Udal Artxibategian edonor harritzeko moduko materiala dagoela.

PLAZA DE TOROS DE FUENTERRABÍA

* **GRAN CORRIDA DE NOVILLOS** *
para el día 20 de Julio de 1902
 Con permiso de la autoridad
 (Y SI EL TIEMPO NO LO IMPIDE)

Se lidiarán cuatro novillos de la acreditada ganadería de D. Sioriano Díaz de Logroño (Navarrete), por las cuadrillas siguientes:

* **ESPADAS** *

María Salomé (la Reverta)
Daniel Patón
(Serenito de Madrid)

BANDERILLEROS.—Antonio Rodríguez (Salerito). Eugenio Iniesta (Cigarrón). Benito Leal. Juan Morales (el Escabechero).

SOBRESALIENTE.—Antonio Rodríguez (Salerito).

PUNZILLERO.—Benito Leal.

María Salomé (la Reverta) dará el salto de la garrocha y banderilleará uno de sus dos novillos, caso de reunirse uno de estas las condiciones para ello.

Duela ehun urte Hondarribiko plazan tankera honetako hainbat zezenketa ospatzen ziren urtean zehar. Uztaila, abuztua eta iraila izaten ziren hilabete oparoenak, eta Jai Nagusietan hiru edota lau zezenketa ospatu izan dira Hondarribiko jaietako historian zehar.

Susperregi

ARTE - GALERIA

San Pedro, 1 20280 Hondarribia
 Tel. 943 64 25 56 / 943 64 70 99 / 647 559 691
 Faxa: 943 64 71 16
 e-mail: garailan@jet.es
 www.susperregi.net
 susperregiarte@terra.es

Hawaii

Hawaiien dena da berezia

San Pedro kalea 12 • 943 64 20 76
 Santiago kalea z/g • Zuloaga z/g • 943 64 17 58
 Rebellin 3 • 943 64 48 00

20280 Hondarribia



*XX. mendearen hasieran Hondarribiko zezen plaza
Gipuzkoako famatuenetakoa zen.*

Duela 100 urteko Hondarribiari buruzko materiala ikertzen ari ginela, hara non ikusi genuen 1902. urtean Hondarribiko plazan emakumezko bat etorri zela zezenketa lan-etan aritzera.

Maria Salome Rodriguez zuen izena, "La Reverte" ezizenez ezaguna zezenketaren munduan. Dokumentuetan jartzen duenez, zezenketan aritzen ziren emakumeen artean ausartena bera zen, eta ondorioz,

emakume bat baina gehiago mundu honetan zebiltzala pentsa dezakegu.

1902ko uztailaren 20an Hondarribiko zezen plazan zezenketa jaialdi bat ospatu zen. Udal Artxibategian oraindik ere egun hartako deialdirako kartela gordetzen da. Han ikus daitekenez, zezenak hiltzeko ardura zutenak Maria Salome "La Reverte" eta Daniel Paton "Serenito de Madrid" izan ziren, eta kuadrilla osatzen zutenak, Anto-

nio Rodriguez "Salerito", Juan Morales "Escabechero", Eugenio Iniesta "Cigarron" eta Benito Leal "Pañitos" izan ziren. Urte bereko abuztuaren 3an berriz ere Hondarribiko plazara etorri zen "La Reverte".

Lehen mailako zezenketa plaza zen Hondarribikoa

Duela mende bat Hondarribiko zezen plaza lehen mailako geldialdi bat zen. Zezenketak ospatzeko ohitura handia zegoen, batez ere udako hilabeteetan. Herriko Jai Nagusietan, bi, hiru edota lau jaialdi ospatzen ziren urtero. Adibidez, esan 1890eko jaietan irailaren 7, 8, 9 eta 10ean zezenketak ospatu zirela. Bien bitartean, 1863an irailaren 8, 9 eta 10ean beste hainbat egin zen.

Dokumentuetan atzera eginda, 1797. urtean nobillada bat egiteko eskaera bat dagoela ere ikusten dugu, eta beste bat 1722. urtekoa ere.

tazioa begiratuta, "La Reverte"ren bizitza kontatzeko modukoa dela ikusten da.

Emakume ausarta, azkarra eta zezenketan oso ona zela dio orduko prentsak. Hala ere, 1908. urtetik aurrera badirudi bere burua gizontzat hartzen duela.

Arrazoa, urte berean Espainiako Erregeak Erret Agindu bat atera zuela, zezenketa debekatuz emakumezkoentzat. Ordutik aurrera, Agustín Rodriguez izango da, baina jadanik ez du emakume zenean izandako arrakastarik izango.

Trabestismo kasu honek sekulako iskanbila sortu zuen XX. mende haserako gizarte kontserbadorean. Hala ere, zezenketatik erretiratuta, Agustín Rodriguez berriz ere Maria Salome Rodriguez bilakatu zuen, eta onartu egin zuen gizon bilakatu zela zezenketaren munduan aurrera egiteko asmoarekin.

La Reverte-ren istorio kurioa

Zezenaren munduari loturiko dokumen-

ALBISTUR eta AROZENA

*Harategia
Urdaitegia*

Zuloaga, 11
Tel. 943 64 18 60
20280 HONDARRIBIA

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

TXIRRINDAK ALOKAGAI !!!



- **NON:** hondartza futbol zelai ondoan
- **ORDUTEGIA:** asteartetik igandera
10:00- 14:00/16:00-20:00
- **PREZIOA:**
 - ordu bat 6 euro
 - hurrengo orduak 4 euro
 - egun osoa 18 euro
 - 2tik 3 egunera 16 euro eguneko
 - 4tik 6 egunera 14 euro eguneko
 - 6 egunetik gora 12 euro eguneko

DIRU
LAGUNTZA

JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA: IRUNGO UDALAK ANTOLATUA

Ikerketa arloa: antropologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika.

Epea: Irailaren 10etik 27arte.

www.irun.org-Tel.: 943 64 92 50

2002-2003 IKASTURTEAN UNIBERTXITATEKO ETA GOI MAILAKO BESTELAKO IKASKETAK EGITEKO IZAERA OROKORREKO BEKAK

Eusko Jaurlaritzak Antolatua

Laguntza motak: ikasteko beka, hiriarteko garraioa, hiriko garraioa, egoitza, material didaktikoa, ierkaskuntza zarbitzuak, karrera amaierako proiektua

Epea: 2002-10-15

Informazio gehiago nahi baduzu pasa zaitetz **Gazte Informazio Bulegotik**.

ZER BISITATU ABUZTUAN



IBIZA

Abuztuaren zehar
 Hotel Florida, alojamendu eta gosaria barne
 8 egun eta 7 gau
 388 eurotik hasita

TUNEZ

Abuztuaren amaieran
 4* Hotela, alojamendu eta gosaria
 Zirkuitu desberdinak
 Hondartzako egonaldiak
 485 eurotik hasita



ESKANDINABIA

Oslo, Jonkoping, Copenhague eta Estokolmo
 Plaza mugatuak
 Ametsetako bidaiak
 750 eurotik hasita



Zuloaga Kalea,2 • 20280 Hondarribia • Tel. 943 64 38 73 / Fax. 943 64 28 76

AUKERAK VIDEO CLUB HONDARRIBIAN



VHS - DVD

BLACK HAWK DERRIBADO

1993ko urrian, Estatu Batuetako soldadu talde bat Somaliara bidalia izan zen Nazio Batuen bake operazio baten zati bezala. Bere lana Mohamed Aidid harrapatzea da, herriaren gidaritzan dagoen diktadorea. Herria gosez hiltzen ari den bitartean, bera aberasten dabil. Dena ongi dihoa haseran, Black Hawk helikoptero bat tirokatzen duten arte. Ridley Scott zuzendariaren eskutik, Josh Hartnett eta Ewan McGregor aktoreak ikusteko aukera ederra.



VHS - DVD

UNA MENTE MARAVILLOSA

Oscar sarietan lau aldiz garaile irteerako filme bat da. Russel Crowe John Nash da, matematiko aparta dena. Nazioarteko ezagupena jasotzearen dagoela, konspirazio baten sartua ikusiko du bere burua, eta ordutik aurrera bere emaztea izango da laguntzaile bakarra. Jennifer Connelly-k betetzen du emaztearen papera, pelikula onenaren saria irabazi zuen filme honetan.



VHS - DVD

EL SEÑOR DE LOS ANILLOS

Zenbait kiderekin laguntzarekin, Frodo Bolson bidaia arriskutsu batetan sartuko da, Eraztun Bakarra puskatu behar du eta. Hala ere, eraztun horren sortzaile den Sauron horren aurka agertuko da, bere laguntzaile taldea bidaliko duelarik. Zure imaginaziotik at dagoen mundu batera eramango zaitu filme honek. Aurten go Oscar sari banaketan lau arlotan jaso zuen saria.

VIDEO CLUB HONDARRIBIA

Alquiler y venta de VHS y DVD

CAJERO AUTOMATICO 24 HORAS
24 ORDUKO KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

VHS - DVD alokairu eta salmenta

FOTOKOPIAK - MUSIKA

Bernat Etxepare, 2 • Tel.: 943 64 34 92 • 20280 HONDARRIBIA

viclhondarribia@terra.es

CRISTOBAL DE ROJAS Y SANDOVAL APEZPIKUARI BURUZKO LIBURU ETA KOADRO BAT EGIN DIRA

Liburua Felix Elejaldek idatzi du, hainbat urtez Viteri Eskoletako maixu izan zen D. Regino-ren seme denak. Hondarribiar pertsonaia handi honi buruz orain artean idatzi den biografia bakarra da honako hau. Rojas y Sandoval apezpikua duela 500 urte jaio zen. Egileak izan dituen zailtasunen artean, lehen bere jaiotze eguna finkatzea izan da. Zenbait historialarik 1502ko uztailaren 24^a jotzen dute jaiotze eguna bezala. Baina Elejaldek egun hori 26an jarri du, Fray Prudencia de Sandoval-ek idatzitako zenbait oharretan oinarriturik. Apezpikuaren iloba eta bere idazkari izandakoa hainbat urtetan.

Bere lehen urteei buruzko oso informazio gutxi dago. Elejaldek bere ikerketa prozesuan bilatu dituen datu guztiak liburuan jarri dira; baina liburuen lehen zatia eman dion tratamendua aipatu beharrekoa da, apezpikua jaio zen garai haietan Hondarribiaren egoera nolakoa zen aztertzen baitu, mutila Hondarribiko kaleetatik korrika ibiltzen zen garai haiek, zeintzuk ziren Alcega familiko kideak (bere ama Dominga-ren familia), eta nola bizi zen harresitutako hiriarren barnean.

Cristobal de Rojas y Sandoval Oviedo, Badajoz, Kordoba eta Sevillako artzapezpikutzan aritu zeneko datuak askoz ugariagoak dira, eta egileak laburpen bat egin behar izan du topatu dituen datu kopuru erraldoiaren aurrean. Felix Elejalde, hogeita-mar liburu baina gehiegoren egilea, horietako batzuk

saritutakoak, denetan argitasun eta egitatea dira bere ezaugarriak, argitaratu berria den liburuan ikus ahal izango dugun bezala, Hondarribiko Udalak berari enkargatu zion liburuan.

KOADROA

Hiriko Alkate den Borja Jauregik Sevillako Artzapezpikutzako Jauregian bertako buru izan zirenen irudiak gordetzen zirelat jakin ahal izan zuen, eta horien artean zegoen Cristobal de Rojas y Sandoval. Udaletxeak, begi onez, pentsatu zuen bere jaiotzaren 500. urteurrenaren ospakizunak arrazoi nahikoa zirela XVI. mendeko irudi haren kopia bat egiteko, Hondarribiko Udaletxeko Areto Nagusian jartzeko. Areto honetan, Sagarzauren bustoaz gain dauden irudiak Hondarribiarekin lotuta dauden pertsonaien irudiak daude, baina denak bertan ez jaiokak, Pedro Viteri, Serapio Mujika eta Javier Ugarte Pages izan ezik.

Hemendik aurrera gure apezpikuaren irudia ere agertuko da, Carlos Ruiz de Ocenda arabar margolariak egindako kopia bati esker. Hainbat urtetan obren birgaitze eta margoketan erakutsi duen gaitasuna dela eta aukeratua izan zen.

J.A

Hondarribiko Historiaren Lagunen Elkarte

Xera

Perfumería • Estheticien

San Pedro, 15
20280 Hondarribia
Tel. 943 64 27 98

LENCERIA

XERA

San Pedro, 5
Tel. 943 64 58 84
HONDARRIBIA

PORTUA ETA SAINT MOOR IKASTETXEA XX. MENDE HASERAN



Hondarribiko Udal Artxibategiak daukan argazki eta postal zaharren bilduma sekulako altxorra da. Noizean behin bisita bat egin eta gure aldizkarirako irudi bat biltzen dugu, eta orduak eta orduak igarotzeko aukera dago argazki haiek begiratzeko. Artxibategira joan eta argazkiak begiratzeko dituen jenderik bada, baina denek ez dute hori egiteko aukerarik, horregatik argitaratzen ditugu gure aldikarian.

Portu auzoko eta batez ere Saint Moor

auzoko irudi historiko bat dakarkigu ale honetan. Ondo aztertu beharrekoa da, orduan konturatzen da bat gure Hondarribia zenbat aldatu den azken 100 urte hauetan.

Era honetako argazki gutxi daude bakoitzaren etxeetan, baina argazki zaharrak dituen orok Udal Euskara Batzordera bidali dezake argitaratua ikusi nahi badu.

ZEIN DA SARITUTAKO GIZON HAU?



Badirudi azken ale hauetan Lehiaketako galdera oso erreza planteatzen dugula, hilero jasotzen ditugun erantzun egokien kopurua kontutan hartuta. Hilabete hontako galdera ere ez dugu batere zaila planteatzen.

Beko-Errota jatetxearen atzekaldean itsasuntzi bat eramana izan zen duela zenbait urte. Itsasuntzi eza-

gun honen izena galdetzen genuen, eta asko izan dira erantzun egokia eman dutenak. Horien artean, garaile irten dena Xabier Eizaguirre izan da, eta berari dagokion bi pertsonentzako afaria.

Ale honetan aldiz, irudian agertzen den gizon honen izena galdetzen dugu. Urte askotan, Udaletxe hontako langile izandakoa, bere izena eta abizena lortutakoan, Udal Euskara Batzordera bidali abuztuaren 20a aurretik.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



ABUZTUAREN 1 ETIK 31 BITARTE



CAPRICORNIO: Oporrak noiz iritsiko zain zaude, beti uzten dituzu uda amaierarako. Horrek badu bere alde ona, zu kanpoan zaudenean ez da masako turismorik egongo, baina orain, denak kanpoan dauden bitartean, zu izorrai. Horrela da bilizta.



AQUARIUS: Eskolan eraman duzun jarrera positiboak laister emango ditu erantzunak, bai zuri baita zure ondokoei ere. Bakoitzak merezi duena dauka, eta egindako esfortzuaren araberako lana tokatuko zaizu zuri.



PISCIS: Besteen alde zerbait egingo bazenu, ez litzateke gaizki egongo, bai beste horrentzat, eta baita zure kontzientziarentzat ere. Orain artean, ez duzu kontzientzia garbirik. Zuk ikusi nola jokatzeko duzun, baina odolkiak ordainetan jasotzen dira normalean.



ARIES: Baliteke hau hilabete ona izatea zuretzat. Ongi merezita daukazu, zeren azken hilabete hauetan zoritxarrek edonora jarraitu zaitu. Dena den, izarrak zurekin daude, eta aprobetxatu, beti ez baita horrela izaten.



TAURO: Ez da urte txarra izaten ari zuretzat, urte ona izan dadin zuk beharrezkoa den guztia egin baituzu. Ondo ari zara, fedez egiten dituzu gauzak, eta pozik zaude. Animo eta segi aurrera.



GEMINIS: Abuztuan zure lagunak kanpora doaz, baia zuk ez duzu dirurik. Zer egin behar duzu? Gurasoei eskatu? Bada dirua aurrezten hasteko garaia, eta ez beti eskean ibiltzeko. Gutxienez ez duzu lapurtzen, eta hori zerbait da.



CANCER: Ondo dago udako hilaibeteetan gorputza ongi mantentzen saiatzea. Horrek on egingo dizu, baina uda pasatzean, zer egingo duzu? Berriro ere patatak jan eta jan? Urte osoan erregularra izatea egokiagoa da.



LEO: Bukatu dira aurtengoz ikasketak, eta urtero bezala dena aprobatu duzu. Urtean eginiko lanaren emaitzak orain jaso dituzu, eta laister oporretara zoaz. Handik bueltan, unibertsitate ikasketak hasiko dituzu, eta horren aurrean beldurturik zaude. Beldur gutxi, edozer egiteko gai zara eta.



VRIGO: Ez duzula loterian jokatzeko? Kiniela garaia oporretan dago, baina zu bezalako ludotapa batek ez du oporrik. Beldurrik gabe jokatu, eta dirua bukatzen denean, akabo. Bitartean gastatu daukazun guztia, animo!



LIBRA: Zure jarrerari buruzko komentarioak ere alperrikakoak dira. Lagun bati huts egin diozu, eta horrek betirako markatuko zaitu. Jokaera hori beldurti batena da, eta zuk benetako beldurtia zarela erakutsi duzu. Gutxienez, aurpegira begiratu eta barkamena eskatu.



ESCORPIO: Pertsona bat baino gehiago ikaztegi bat dirudizu. Egun osoa kea botatzen ari zara, eta kontutan hartu urtean zehar milioika pertsona hiltzen direla tabakoa dela eta. Erretzaile guztiek berdina diozute, zuei ez zaizuela tokatuko. Ordua iristean ez hasi negarrez.



SAGITARIO: Jaitan jai esaten duen horietakoa zara. Hori 18 urterekin oso ondo zegoen, baina orain adin hori bikoitzen duzula, biriken lana astu-nagoa da, eta horrek eragin handia izango du aurrerantzean. Kontu izan.



jaiotzak

3an: Larraitz Palenzuela Bollaín
Gurasoak: Jose Ramon eta Izaskun

4an: Ander Aguirre Larrarte
Gurasoak: Victor Manuel eta Izaskun

8an: Nahia Rodriguez Iriarte
Gurasoak: Joaquin eta Miren

10an: Ekain Zabala Aristizabal
Gurasoak: Karlos eta Margarita

11an: Garazi Jerico Amunarriz
Gurasoak: Fausto eta Lourdes

13an: Jon Andoni Arrieta Ortiz
Gurasoak: Iñaki eta Rosa

16an: Kira Anaut Amunarriz
Gurasoak: Enrique eta M^a Francisca

18an: Unai Poeta Matheu
Gurasoak: Jose Ramon eta Susana

20an: Sara Roitegi Iñurategi
Gurasoak: Jose Angel eta Estibalitz

23an: Maialen Trevijano Manterola
Gurasoak: Carlos eta Yolanda

26an: Nerea Zuaznabar Montoya
Gurasoak: Andres eta Monica

28an: Euri Tife Arregi
Gurasoak: Xabier eta Maite

29an: Alejandra Espinosa Ribera
Gurasoak: Borja eta Elena

29an: Irati Camarero Barrasa
Gurasoak: Enrique eta Mayi

ezkontzak

1ean: Santiago Martinez Lekuona, Hondarribikoa eta M^a Teresa Olazabal Gutierrez, Hondarribikoa

1ean: Victor Manuel Urbano Juanes, Irungoa eta M^a Cristina Diez Ramirez, Hondarribikoa

7an: Iñaki Sorondo Hernandez, Irungoa eta Miren Sunsundegi Egia, Hondarribikoa

8an: Agustin Sarratea Irigoien, Irungoa eta Begoña Gonzalez Amunarriz, Hondarribikoa

8an: Esteban Velasco Bernal, Irungoa eta Gema Vaquero Diaz, Hondarribikoa

8an: Jose Manuel Barreiro Velez de Mendizabal, Hondarribikoa eta Cristina El Busto Martin, Irungoa

8an: Zigor Lucas Gomez, Urrietakoa eta Ainara Salterain Olagibel, Hondarribikoa

15ean: Alvaro Mendi Aliende, Irungoa eta Ainhoa Errazkin Alonso, Hondarribikoa.

15ean: Jose Mari Busto Alkain, Hondarribikoa eta Sandra Larrañaga Lafleur, Irungoa

15ean: Iban Maestre Martin, Irungoa eta Itziar Sanz Alzuguren, Hondarribikoa

22an: Pablo Bilbao Mayor, Hondarribikoa eta M^a Eugenia Olareaga Yeregui, Donostikoa

22an: Sebastian Pitault, Uruñekoa eta Eduarne Agirezabala Ansa, Hondarribikoa

28an: Jose Luis Martinez Araneta, Hondarribikoa eta Carmen Herraiz de Miota, Madrilkekoa.

heriotzak

7an: M^a Cristina Etxeberria Sasieta, 54 urtekoa. Kale Nagusia.

12an: Roman Berrotaran Zubillaga, 92 urtekoa. San Gabriel Egoitza

12an: Jose Etxaide Anzisar, 82 urtekoa. Eguzki Lore

19an: Josefa Jauregi Arruabarrena, 74 urtekoa. Bide-Gurutze, Arkoll

21ean: Justa Iparagirre Menditegi, 100 urtekoa. Manciategi, Jaizubia

26an: M^a Jesus Arizmendi Galarza, 74 urtekoa. Ama Guadalupekoa.

26an: Lucio Emparan Lekuona, 86 urtekoa. Bernat Etxepare

29an: Estefania Aginagalde Mixelena, 91 urtekoa. Kaikuagui, Jaizubia.

ENDANEA

lore eta landare
mintegia






Arkoll auzoa, 7
Tel.: 943 64 17 10
20280 HONDARRIBIA

Joski

- LENTZERIA
- HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA






Kirolean.



Enpresetan.



Jaietan.



Kulturan.



Osasunean.



Aisialdian.

**KUTXAREN
IRABAZIAK NONAHI
DIRA AGERI.**